

## IKASTETXEKO JANTOKIAN BETETZEKO ARAUAK

1. Jantokira sartzean eta irtetean erabiltzaileek beteko dituzte zaindarien emandako aginduak; korrika egin gabe eta oihukatu gabe.
2. Bazkaltzen duten bitartean eta bazkariaren ostean pertsona eskudunak arduratuko dira ikasleen zaintzaz.
3. Jantoki ordutegian, 13:00etatik 15:00etara, ikasleak ezin izango dira ikastetxetik atera gurasoak edo tutoreak haien bila etorri ezean edo haien baimenik gabe. Hau Zuzendaritzan jakinaraziko da.
4. Ikasleek begirunea erakutsiko diete zaindariei, langileei, bazkideei eta serorei.
5. Bazkaltzen duten bitartean ezin izango dute mobila erabili, ezta MP3a ere. Erabiliz gero, kenduko zaie.
6. Mahaikideek sukaldeko tresnak egokiro erabiliko dituzte; hauen hondatzea saihesteko, arduradunek emandako jarraibideak beteko dituzte. Hondatzen bada txarto erabiltzeagatik, berria erosi behar izango da.
7. Ikasleak behin eta berriz bazkaltzeari uko egiten badio, gurasoei jakinaraziko zaie irtenbide egokienak hartzeko.
8. Ikasleren batek jantokiko arauak betetzen ez baditu abisua emango zaio eta, behar izanez gero, denboraldi batez edo behin betiko ezin izango du jantoki zerbitzua erabili. Ezin daiteke inor mahaitik altxatu arduradunari baimena eskatu gabe.
9. Zerbait behar bada eskua altxatuko da eta mesedez eskatuko da; amaieran eskerrak emango dira. Ahopean hitz egitea komenigarria da.
10. Hurrengo hilabeteko 6. egunetik aurrera kobratuko da dirua, eta ordaindu ezean zerbitzuaren erabilera gal dezake. Ordainagiria itzultzen badute ikasleak ordainduko ditu gastuak. Ikasleren batek pasa den ikasturteko ordainagiriren bat ordaindu gabe baldin badauka, ezin izango du ikastetxeko jantokian bazkaldu dena ordaindu arte.
11. Ikasleak dieta berezia izanez gero, zuzendaritzan jakinaraziko da; medikuak egindako eta sinatutako txostena erakutsi behar izango da.

.....Hemendik ebaki.....

Ikaslearen izen-deiturak: .....

Ikastetxeko jantokian betetzeko arauari buruzko informazioa jaso dut (eman arduradunari jantokiko lehenengo egunean).

Guraso edo tutoreen sinadura.